

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE POLITIKEN SAILA

137/2020 Foru Agindua, irailaren 23koa, zeinak arautzen baititu Arabako Lurralde Historikoko adineko pertsonentzako eta desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza zentroetako bisitak eta irteerak Covid-19ak eragindako osasun krisialdiak iraun bitartean

Eusko Jaurlaritzak, Osasun sailburuaren 2020ko abuztuaren 14ko Aginduaren bidez, formalki berraktibatu zuen Euskadiko Babes Zibileko Plana, Covid-19a hedatzearen ondoriozko osasun alertak sortutako egoeraren aurrean. Ondoren, Lehendakariak, abuztuaren 15eko 17/2020 Dekretuaren bidez, bere gain hartu zuen Euskadiko Babes Zibileko Planaren zuzendaritza, COVID-19aren hedapenaren ondoriozko osasun alertak sortutako egoera dela eta, ezohiko moduan.

Aurretik, Estatuko Administrazio Orokorrek, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez, alarma egoera deklaratu zuen hamabost (15) egunez, COVID-19ak sortutako osasun krisia kudeatzeko, eta alarma egoera hori hainbat aldiz luzatu zuen. Ekainaren 5eko 555/2020 Errege Dekretuaren bidez egindako azken luzapenak 5. artikuluan ezartzen duenez, COVID-19aren pandemiari aurre egiteko hartutako ezohiko neurriak deseskalatzeko planean aurreikusitako fase guztiak gaituz gero, alarma egoera deklaratzeko indarrean jarritako neurriak ondorioz gabe geratzen dira. Errege Dekretu horren 6. artikulua honako hau dio: "Administrazio bakoitzak bere zerbitzuen kudeaketa arruntan indarrean dagoen legeriak ematen dizkion eskumenak izango ditu, eta agintari eskudunaren agindu zuzenen esparruan alarma egoeraren ondorioetarako beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartu ahal izango ditu, 3. eta 5. artikuluetan ezarritakoa gorabehera".

Horiek horrela, familiarekiko edo hurbileneko pertsonetako harremana edozein motatako zentroan bizi diren pertsonen eskubidea eta beharra dela kontuan hartuta, Gizarte Politikaren Sailak abuztuaren 7ko 127/2020 Foru Agindua onetsi zuen, zeinaren bidez irteerak mugatu eta bisitak mugatu eta arautu baitziren adinekoren eta desgaitasuna duten pertsonen egoitza zentroetan, eta 2020ko abuztuaren 10etik aurrera titulartasun publikoko eguneko zentroak irekitzeko agindu, salbu eta Bizia eguneko zentroko asteburuetako zerbitzuak.

Adinekoek eta/edo desgaitasuna duten pertsonen eta haien hurbilekoen birusa hedatzea prebenitzeko hartutako neurrien ondorioz paira dezaketeko sufrimendua eta narriadura psikologikoa prebenitzeko neurria dira bisitak.

Osasun sailburuaren 2020ko abuztuaren 19ko Aginduaren esparruan, eta orain arte eskurgarri dagoen ebidentzia zientifikoa eta zaintza epidemiologikoko protokolo eguneratuak kontuan hartuta, bisitak irteerekin osatu behar dira, eta batez ere ibilaldi terapeutikoen izan behar dute lehentasuna; izan ere, konfinamenduak egoitza zentroetan dauden pertsonengan eragiten duen kaltea minimizatzen laguntzen duen neurri terapeutikoa dira, eta osasuna zaintzen eta sustatzen lagun dezakete.

Hori guztia dela eta, foru agindu honen bidez, irteerak eta bisitak batera arautzen dira, funtsezko elementuak baitira egoiliarren osasun fisikorako eta emozionalerako, eta, aldi berean, COVID-19arekin lotutako prebentzio jarraibideak aplikatzen dira.

Sail honek eskumena du zentroek behar bezala funtzionatzeko behar diren jarraibideak emateko eta erabiltzaileen eta langileen osasuna bermatzeko, honako hauek oinarri hartuta: Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea; Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretua; Euskal Autonomia

Erkidegoko Adinekoentzako Egoitza Zentroei buruzko uztailaren 30eko 126/2019 Dekretua, eta COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko premiazko prebentzio, euste eta koordinazio neurriei buruzko ekainaren 9ko 21/2020 Errege Lege Dekretuaren 10. artikulua.

Indarrean dagoen araudian esleitutako eskumenetan oinarrituta,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. Ezartzea nola egin ditzaketen bisitak senideek eta/edo hurbilekoek eta nola gauza daitezkeen irteerak mendekotasun egoeran dauden adinekoentzako eta desgaitasuna duten pertsonentzako Arabako Lurralde Historikoko egoitza zentroetan.

Bigarrena. Egoiliar bakoitzeko bisitari bakarra izan daiteke, eta prebentzio neurriak zorrotzu behar dira. Egoiliar bakoitzak gutxienez astean bi bisita izatea ahalbidetuko da, eta, ahal dela, bisitaria beti pertsona bera izango da. Bisitak ordubeteko iraupena izango du, gehienez ere.

Zentroak bisiten maiztasuna handiagoa izatea eta bisitaria beti pertsona bera izan behar ez izatea baimendu ahal izango du, egoiliarraren egoera pertsonalaren, harremanen eta osasun alertako egoera deklaratu aurreko dinamikaren arabera.

Hirugarrena. Egoiliarren irteerei dagokienez, ibilaldi terapeutikoez izango dute lehentasuna, eta egoitzaren inguruko leku irekietan egingo dira, senideek edo hurbilekoek lagunduta.

Egoiliar bakoitzak gehienez ere bi irteera egin ahal izango ditu astean, egoera epidemiologikoa horretarako aukera ematen duen zentro guztietan. Irteeretan, saihestu egingo dira, beti, leku itxiak eta jendetsuak. Irteerek gehienez ere ordubeteko iraupena izango dute, eta egoiliar bakoitza gehienez ere gertuko bi pertsonak edo bi senidek lagundu ahal izango dute.

Laugarrena. Foru agindu honen lehen eta bigarren puntuetan ezarritakoa salbuetsi ahal izango da, bisiten kasuan, egoiliarra bizitzaren amaierako prozesuan dagoenean (bai hiltzorian, bai egoera terminalean), estimua adieraztea eta ebatzteko dauden gaiak ebatzea posible izan dadin, ekintza horiek beharrezkoak baitira ongi hiltzeko.

Baldintza horiek betetzen diren ala ez zentroko diziplina anitzeko taldeak erabaki beharko du, txosten arrazoitu batean, eta egoiliarraren historia sozialean jaso behar da.

Bosgarrena. Agindu honetan araututako aurrez aurreko bisitak aukerako beste sistema batzuekin eta telematiko batzuekin osatu beharko dira, egoiliarra eta haren familia edo hurbilekoak harremanetan egoteko, hala nola bideo deiak edo bideokonferentziak.

Arreta berezia jarriko da egoera ulertzea eta/edo senideekin eta/edo hurbileko pertsonekin harremanetan jartzeko bestelako bitartekoak erabiltzea eragozten duten egoera kognitiboetan eta bestelako egoera psiko-sozialean, baldin eta profesionalak uste badute isolamendu sozialak egoiliarraren ongizateari kalte egitea eragotzi behar dela. Horretarako, foru agindu honen laugarren puntuan ezarritakoak baino maiztasun handiagoak baimendu beharko dira.

Seigarrena. Zentro bakoitzak protokolo zehatza egin behar du aurrez aurreko bisitetarako eta irteerarako, zentroaren egitura eta ezaugarri zehatzetara egokituta, eta birusa bisitarien, egoiliarren eta profesionalen artean kutsatzea saihesteko beharrezkoak diren antolaketa, prebentzio eta higiene neurriak jaso behar ditu, unean-unean indarrean dauden protokoloetara egokituta.

Zentroko diziplina anitzeko taldeak eta laguntzarako erreferente gorenak onartu beharko dute dokumentu hori, eta Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Saileko Erregistro eta Ikuskaritza Zerbitzuaren eskura egon beharko du.

Zazpigarrena. Honako hauek izango dira, gutxienez, mendekotasun egoeran dauden adinekoentzako eta desgaitasuna duten pertsonentzako egoitzetan senideek eta/edo hurbilekoek aurrez aurreko bisitak egiteko bermatu behar diren baldintzak:

A. Eskuen higiene neurriak eta arnas higiene neurriak zorrotzu behar dira, eta egoiliarrari COVID-19ak zein neurritan erasaten dion, horren arabera beharrezkoak diren norbera babesteko ekipamenduak erabili behar dira.

B. Egoiarrari COVID-19a diagnostikatuta badiote, bisitariak FFP2 maskara, eskularruak, pantaila, galtzak eta mantala duten norbera babesteko ekipamendu osoak erabili beharko dituzte.

C. Zentroko beste edozein pertsonarekiko gutxieneko distantzia bi metrokoa izateko moduan antolatu behar da bisita.

D. Zentroko osasun langileek kasu zehatz bakoitzerako ezarri beharko dute kutsatze arriskua minimizatzeko jarraitu beharreko prozedura.

E. Zentroko arduradun batek gainbegiratu beharko du higiene arauak betetzen direla eta ezarritako babesak erabiltzen direla; temperatura hartuko die bisitariei, eta galdetuko die COVID-19arekin lotutako sintomarik duten. Bisitariak sintomarik izanez gero, bisita bertan behera geratuko da. Bisitariei gogorarazi behar zaie egoitza zentroari jakinarazi behar diotela bisita egin eta hurrengo egunetan COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak badituzte.

F. Ahal dela, bisitaria pertsona bera izango da beti, baina salbuespenak egin ahal izango dira, egoeraren arabera.

G. Ordutegiak senideek bisita egin ahal izan dezaten eta bisitariak topo ez egiteko moduan programatu beharko dira, egunean zehar mailakatuz.

H. Ahal den neurrian, bisitak bizigarritasun eremutik kanpo egin behar dira, eta ezin dira egoiarraren gelan egin, ezinbesteko kasuetan izan ezik. Kanpoaldetik ahalik eta hurbilen egongo da, ezinbestekoak diren joan-etorrikoak baino ez egiteko, eta leku zabal eta aireztatu batean.

I. Ibilbidea ondo seinalizatuta egon behar da –edo zentroko profesionalekin egingo da–, eta ezingo da pasa egoiarrak erabiltzen dituzten ibilbideetatik.

J. Sarreran, gel hidroalkoholikoko banagailu bat eta eskuak desinfektatzeko metodo egokiari buruzko infografia bat jarri behar dira. Bisitaren aurretik eta ondoren garbitu behar dira eskuak.

K. Bisita egin aurretik, bete beharreko higiene arauen berri emango da, bai eta topaketa egingo den tokiaren kokapenaren eta bertara iristeko moduaren berri ere.

L. Egoiarrak zein bisitariak ukitzen dituzten altzariak desinfektatu egin behar dira bisita baten eta hurrengoaren artean.

M. Ezin zaie kanpoko objekturik eman egoiarrari. Kanpoko objekturen bat eramanez gero, non jarri adieraziko zaio bisitariari, egoiarrari eman baino lehen desinfektatu ahal izateko.

N. Egoiarrak –ahal den guztietan– eta laguntzaileak maskara eraman beharko dute, eta gel hidroalkoholikoa erabili bisitaren aurretik eta ondoren.

Ñ. Oro har, bi metroko tarte fisikoa utzi behar den arren, egoiarrak eta bisitariak elkar ukitzea baimentzen da, baldin eta biek maskara jantzita badute eta eskuak garbitzen badituzte, eta soilik pertsonen arteko harremana izateko modu bakarra bada.

Zortzigarrena. Mendekotasun egoeran dauden adinekoentzako eta desgaitasuna duten pertsonentzako egoitzetako egoiarrak senideekin eta/edo hurbilekoekin irteerak egiteko, honako baldintza hauek bermatu behar dira, gutxienez:

A. Eskuen higiene neurriak eta arnas higiene neurriak zorrotz behar dira, eta egoiarrari COVID-19ak zein neurritan erasaten dion, horren arabera beharrezkoak diren norbera babesteko ekipamenduak erabili behar dira.

B. Zentroko beste edozein pertsonarekiko gutxieneko distantzia bi metrokoa izateko moduan antolatu behar da irteera. Paseatu bitartean ere tarte hori utzi behar da, baina egoiarrak eta laguntzaileak elkar ukitzea baimentzen da, baldin eta biek maskara jantzita badute eta eskuak garbitzen badituzte. eta soilik pertsonen arteko harremana izateko modu bakarra bada Lagundu ahal izateko gehiago hurbildu behar izanez gero, laguntzailea izan behar da beti laguntza

ematen duena. Pertsona horrek oso zorroz bete behar ditu eskuen higiene neurriak eta arnas higiene neurriak. Eskuak 40-60 segundoz garbitu behar ditu urarekin eta xaboiarekin, egoiliarra edo haren tresnak ukitu aurretik eta ondoren. Hori ezinezkoa bada, gel hidroalkoholikoz desinfektatu behar ditu eskuak.

C. Zentroko osasun langileek kasu zehatz bakoitzerako ezarri beharko dute kutsatze arriskua minimizatzen jarraitu beharreko prozedura.

D. Zentroko arduradun batek gainbegiratu beharko du higiene arauak betetzen direla eta ezarritako babesak erabiltzen direla; tenperatura hartuko die laguntzaileei, eta galdetuko die COVID-19arekin lotutako sintomarik duten. Laguntzaileak sintomarik izanez gero, irteera bertan behera geratuko da. Senideei gogorarazi behar zaie egoitza zentroari jakinarazi behar diotela paseatzera atera eta hurrengo egunetan COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak badituzte.

E. Ahal dela, irteerak pertsona berarekin egingo dira beti, baina salbuespenak egin ahal izango dira, egoeraren arabera.

F. Ordutegiak bisitariak topo ez egiteko moduan programatu beharko dira, egunean zehar mailakatuz.

G. Egoitzaren sarreran, gel hidroalkoholikoko banagailu bat eta eskuak desinfektatzeko metodo egokiari buruzko infografia bat jarri behar dira. Egoiliarraren laguntzaileak egoiliarrarekin irten baino lehen eta ondoren desinfektatu beharko ditu eskuak.

H. Irteeraren aurretik, bete beharreko higiene arauen berri emango da, bai eta topaketa egingo den tokiaren kokapenaren eta bertara iristeko moduen berri ere.

I. Laguntzaileak egoitza zentroko sarreran itzarongo dio zentroko erreferentziako profesionalari, eta hark lagunduko dio egoiliarrarengana. Esparruaren barruan kanpoaldea eta/edo lorategia duten egoitza zentroetan, ibilbide espezifikoak prestatu beharko dira, ondo seinalez-tatuta, egoiliarrek eta senideek ibilaldi terapeutikoak ingurune seguruagoan egin ahal izateko, betiere beste egoiliar batzuekin harremanik ez dagoela bermatuta.

J. Paseoa amaitu ondoren, zentroko langileek eta erreferentziako pertsonak senidea agurtu beharko dute eta egoiliarrari dagokion lekura (egongela, jangela edo logela) lagundu; guztiek garbitu beharko dituzte eskuak behar bezala eta zentroak agindutako higiene neurriak bete beharko dituzte.

K. Ezin zaie kanpoko objekturik eman egoiliarrei. Kanpoko objekturen bat eramanez gero, non jarri adieraziko zaio bisitariari, egoiliarrari eman baino lehen desinfektatu ahal izateko.

L. Egoiliarrak –ahal den guztietan– eta laguntzaileak maskara eraman beharko dute, eta gel hidroalkoholikoa erabili irteeraren aurretik eta ondoren.

Bederatzigarrena. Egoitza zentroak bisitak eta irteerak egiten dituzten egoiliarren eta senideen edo/eta hurbilekoen erregistroa egingo du foru administrazioak COVID-19aren hedapena zaintzeko eta prebenitzeko gaitzen dituen aplikazioetan.

Hamargarrena. Bisitariak eta senideak eta/edo hurbilekoak onartzen dute foru agindu honetan ezarritako jarraibideak betetzea, zentroetako arduradunek unean-unean ematen dizkieten jarraibideak betez.

Hamaikagarrena. Foru agindu honetan bisitak eta irteerak egiteko ezarritako baldintzak moldatu ahal izango dira, bai eta aldi baterako eten ere, zentroaren edo zentroa kokatuta dagoen erkidegoaren edo udalerraren egoera epidemiologikoaren ondorioz. Gizarte Politiken Saileko Ikuskapen eta Kontrol Zerbitzuak edo beste edozein agintaritzak publiko eskudunak eman beharko du aldaketa horien berri.

Hamabigarrena. Hemen ezarritakoa aplikatuko zaie gizarte zerbitzuetako baimendutako beste zentro mota batzuei, baldin eta bertan egoiliarrak antzeko egoeretan baldin badaude.

Hamahirugarrena. Arabako Lurralde Historikoko udalei eta titulartasun pribatuko zentroi gomendatzea Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Foru Sailak agindu honetan onetsitakoen antzeko neurriak har ditzatela.

Hamalauugarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean, eta indarrean jarraituko du COVID-19aren pandemiak eragindako osasun krisiaren inguruabarrak aldatzen ez diren bitartean.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA. Indargabetu egiten da abuztuaren 7ko 127/2020 Foru Agindua, zeinaren bidez irteerak mugatu eta bisitak mugatu eta arautu baitziren adinekoen eta desgaitasuna duten pertsonen egoitza zentroetan, eta 2020ko abuztuaren 10etik aurrera titulartasun publikoko eguneko zentroak irekitzeko agindu, salbu eta Bizia eguneko zentroko asteburuetakako zerbitzuak.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 24a

Gizarte Politiken Saileko foru diputatua
EMILIO SOLA BALLOJERA

Gizarte Zerbitzuen zuzendaria
ANA BELÉN OTERO MIGUÉLEZ